

Hona gure azken berriak: Liburuaren eguneko **merkadillo musikatuan antolakuntzan** parte hartu zuten guztiei eskerrik asko. Historia, liburu feministak, komikiak ... eta ale artistikoen erakusketan ondo gozatu zuten ikasleek.

**Itxaro Bordak** bere azken liburua, **Itzalen tektonika**, aurkeztu zigun liburutegira hurbildu ginen irakasleoi.

Maiatzean zehar **Moio liburuaren ozeneko irakurketan ari dira** 4DBHko hainbat talde eta esperientzia aberasgarria izaten ari da. Hilak 15ean, **Filosofiako** hainbat ikasleek grabaturiko **bideoaren** estreinaldia izango dute 11:00etan.

## AZKEN EROSKETAK

Itxaro Bordaren **Itzalen tektonika**  
poesia liburua

[https://www.berria.eus/kultura/lurrikaren-tan-kerako-poemak\\_2124117\\_102.html](https://www.berria.eus/kultura/lurrikaren-tan-kerako-poemak_2124117_102.html)

**Herriak du gehien agintzen** Raquel Varela eta Robson Vilalbak ondutako komikia Portugalgo Krabelinen Iraultzari buruz.

[https://www.berria.eus/kultura/portugal-irauli-zuten-krabelinak\\_2124210\\_102.html](https://www.berria.eus/kultura/portugal-irauli-zuten-krabelinak_2124210_102.html)

## GOMENDIOAK

Paul Auster [gogoan](#). Liburutegian titulu hauek eskuragarri dituzue:

*Gizona ilunpean*

*Kristalezko hiria* (komikia)

*Bidaiak scriptoriumean zehar*

*Brooklyngo erokeriak*

Eta gogoratu: mailegu zerbitzua martxan dago

